

AGUSTIN ARANZABAL REALEKO KAPITAINA

DERBIA

«Athleticen aurkako partidari gazteei lasai egoteko esan behar zaie, ez urduritzeko, eta betiko jokoa egiten ahalegintzeko»

PACHUCAREN AURKAKO PARTIDA

«Denboraldi-aurrean entrenamendu asko egin ditugu, eta taldea nahiko nekatuta zegoen bigarren zatian. Baina normala da»



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS
De Pedro, lan saio batean.

De Pedrok uzkurdura bat izan du eskuin hankan, eta gaur erabakiko dute derbia jokatuko duen edo ez

J.O. | DONOSTIA

Azken orduko ezustekoa izan zuen atzo Raynald Denoueix Realeko entrenatzaileak igandeko partidari begira. Javier De Pedro uzkurdura bat izan du eskuin hankako aurreko gihar zuzenean, eta gaurko entrenamendura arte ez da jakingo donostiarra igandean Athleticen aurka jokatzeke moduan izango den. Horrelako lesioek osatzeko egun bat eta hiruren artean behar izaten dira, eta, derbia hiru egun barru jokatuko denez, hortxe-hortxe egongo da De Pedro jokatzeke. Hala ere, baliteke gaur bertan minik ez izatea eta entrenatzen hasi ondoren haren parte-hartzea ziurtatzea.

Nolanahi ere, iaz ez bezala lesioekin denboraldi-aurre honetan Realak izan duen zortea bukatu egin da uzkurdura horrekin. Jokalariak berak herenegun denboraldi honetan min hartzeko beldur zela adierazi zuen, Munduko Txapelketa jokatu zuenez bi aste eta erdiko oporrrak besterik izan ez dituelako. Gainera, Denoueixek denboraldi-aurrean lan fisikoa azpimarratu nahi izan du, eta horrek eragina izan dezake. «Ni ez nago nekatuta. Fisikoki ondo nago, taldekide batzuk baino hobeto. Baina ez dut opor egun askorik izan, eta lesioen beldur naiz. Horrela izan ez dadila espero dezagun», esan zuen De Pedrok herenegun.

Gabilondok ordezkatzuko luke

Opor egun gutxi izan zituelako, hain zuzen, De Pedro fisikoki oso ondo zegoen, eta Denoueixentzako kolpe gogorra izango litzateke donostiarrak ez jokatzea. Azkenean horrela balitz, Igor Gabilondok hartuko luke haren postua, zelai erdian. Atzoko lan saioan Gabilondo hasiera batean zelai erdian hasieratik jokatuko duten jokalariekin aritu zen.



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

«Hemengo jokalariek gazteek beti edukiko dute jokatzeke aukera»

Jon Ordoñez | DONOSTIA

Agustin Aranzabalek igandean jarriko du Realaren kapitainaren besokoa lehengo aldiz txapelketa ofizialetan. Hamargarren denboraldia du lehen taldean, eta, gaur egun utzita joan diren jokalariek gazte batzuek bezala, Aranzabalek ere lehen taldea utzi beharra izan zuen. Lehen Mailan urtebetez aritu ondoren —1993ko otsailaren 21ean hasi zen jokatzen, Coruña— 1993-1994. denboraldian Real B-ra itzuli beharra izan zuen. Harrobia une onenean ez egon arren, jokalariek beragarri animoak eman nahi dizkie jokalariek gazteei.

■ **Igandean ez duzu topo egingo Etxeberriarekin, baina Arriaga jokalariek gazteekin bai.**

Bai, Bilbon ere jende gaztea

sartzen ari dira, eta gazteak gogo handiarekin zelairatzen dira. Igandeko partida edozeinek jokatuta ere, nahikoa lan izango dugu.

■ **Realeko jokalariek gazte batzuk, ordea, utzita joan dira beste talde batzuetara. Kapitain zaren aldetik, zer esango zenieke lehen taldean egoteko itzaropena duten jokalariei?**

Itzaropena beti eduki behar da. Buruan berriro ere itzuliko zarela eduki behar duzu, eta lan asko egin behar duzula. Nire ustez, hemengo jokalariek gazteek beti edukiko dute jokatzeke aukera. Aurten ere batzuk lehen taldearekin entrenatzen hasi direla ikusi dugu, eta batzuk geratu egingo direla. Beraiek dira aurrerantzean taldea hor egotea lortu behar dutenak. Beraiek izan

behar dira geroko mutilak, geroko gizonak.

■ **Kapitaina izateagatik derbia zuretaz ez dela ezberdina izango esan duzu, baina zer esaten zaie jokalariek gazteei horrelako partidak jokatzeke?**

Athleticen aurkako derbia tentsio handiko partida izaten da, eta oso borrokatua. Jende gaztea ere askotan egoten da, eta lasai egoteko eta beren betiko jokoa egiten ahalegindu behar dutela esan behar zaie. Ahal badute, beti egoten den urduritasun hori alde batera utzi, eta beste partida batzuk bezalakoa ez izan arren, jokatu egin behar dela.

■ **Eta zure lehenengo derbitan zer esaten zizun zure kapitainak?**

Batez ere hasieran, lasai egoteko. Lehen minutuetan baloia

galtzen baduzu, beti urduritzen zara. Hasieran erraz jokatu behar da, eta pixkanaka, partidak aurrera egiten duen heinean, bakoitzak bere jokoa egin.

■ **Denoueixek esan al dizu denboraldian zein izango den zure ardura kapitain izateagatik?**

Ez. Ni izango nintzela esan zidaten. Taldekideak izendapenarekin ere gustura daudela uste dut, eta horregatik hartu nuen eginkizun hori. Baina besterik ez.

■ **Taldearen helburua bada-kigu zein den; baina, adin honetara eta kapitain izatera iritsita, zein da orain zure helburua?**

Orain taldean bakarrik pentsatzen dut. Hiru denboraldi txar izan ditugu, eta orain egin beharrekoa lasaitasuna bilatzea da. Ea taldea sailkapenaren erdialdean jartzen den. Ondo hastea da orain helburua.

■ **Partida baten bezperan garrantzitsua hiru puntuak direla esaten da; baina, iazko Liga hasiera gogoratu, aurten ez al dago jokoa hiru puntu horiek baino zer bait gehiago?**

Hiru puntuak lortzen baditugu, taldeak konfiantza hartuko du, eta denontzat oso ona izango da. Gainera, aurreko urteetako hasierak nahiko kaskarrak izan direla ikusita, oraindik gehiago, gero hasiera horri buelta ematea asko kostatu izan baitzaigu. Baina, beharbada, lehenengo bi partidak galtzen dituzu eta gero hurrengo laurak irabazten dituzu. Askotan ez dakizu, baina lehen bi partidetan ondo hastea beti da garrantzitsua.

■ **Anoetan da lehenengo partida. Pachucaren aurka ez zenuten itxura onik eman.**

Denboraldi-aurrean entrenamendu asko egin ditugu, eta taldea nahiko nekatuta zegoen partida hartan. Lehenengo 30 edo 40 minutuak nahiko onak izan ziren, baina bigarren zatian nekatuta geundela nabaritu zen. Hori normala da, baina Liga orain hasiko da, eta orain dator garrantzitsua.

■ **Denboraldi-aurreko erreferentzia Atalantaren aurkako partida da. Ea igandean Italian emandako itxura bera ematen duzun.**

Bai, hori izan da gure partidarik onena. Partida txukuna izan zen, eta horregatik pozik daude. Gainera, Liga hasteko astebete bakarrik geratzen zen, eta horregatik hori izango litzateke gure erreferentzia.